

ACUERDO de 18 de septiembre de 2006, del Gobierno de Navarra, por el que se adoptan diversas medidas en materia de vascuence.

La política lingüística del Gobierno de Navarra de la presente década, ha cumplido eficazmente las expectativas y los objetivos fijados en la Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra y en la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence, superando las polémicas que interesadamente se han suscitado desde muy concretos sectores sociales. El desarrollo normativo y las actuaciones administrativas llevadas a cabo en su aplicación se han mostrado respetuosas con el ordenamiento jurídico, como así lo han acreditado tanto el Consejo de Navarra como los Tribunales de Justicia, si bien con algunas matizaciones introducidas por las sentencias de estos últimos, referidas siempre a aspectos puntuales de la misma.

El artículo 1.2 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence señala como objetivo esencial de la misma el de amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el vascuence y definir los instrumentos para hacerlo efectivo; y el artículo 3.1 de la misma dispone que los poderes públicos adoptarán cuantas medidas sean necesarias para impedir la discriminación de los ciudadanos por razones de lengua.

Uno de los instrumentos para la consecución de los objetivos que debe perseguir la política lingüística del Gobierno de Navarra, previsto en el actualmente

ERABAKIA, 2006ko irailaren 18koa, Nafarroako Gobernuak hartua, euskarari buruzko zenbait neurri hartzen dituena.

Hamarkada honetan Nafarroako Gobernuak jorratu duen hizkuntza politikak eraginkortasunez bete ditu Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan eta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean ezarritako aurreikuspen eta helburuak, gizarte sektore jakin batzuek modu interesatuan piztu dituzten ika-mikak gaindituz. Arauen garapena eta arau berri horiek aplikatzeko egindako administrazio jarduketak antolamendu juridikoaren araberakoak izan dira, eta hori baietsi dute bai Nafarroako Kontseiluak bai epaitegiek, azken horien epaietan hizkuntza politikaren alderdi jakin batzuei buruz egindako zenbait ñabardura gorabehera.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 1.2 artikuluan adierazten da legearen ezinbesteko helburua dela herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori ahalbidetzeko tresnak zehaztea, eta 3.1 artikuluan, berriz, botere publikoek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituztela herritarrak hizkuntzagatik gutxietsiak izan ez daitezten.

Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikak bere helburuak lortzeko dituen tresnetariko bat jarduketa planak dira, euskararen erabilera Nafarroako Administrazio

vigente Decreto Foral 29/2003, de 10 de febrero, por el que se regula el uso del vascuence en las Administraciones Públicas de Navarra, son los planes de actuación, que debe aprobar el Gobierno de Navarra en el ámbito de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y, potestativamente, cada una de las entidades locales dentro de su propio ámbito de actuación.

El Gobierno de Navarra, recogiendo el sentir mayoritario del Parlamento de Navarra, así como la petición expresada por algunas entidades locales de la Comunidad Foral, fundamentalmente sitas en la zona mixta, considera oportuno proceder a la elaboración de unos nuevos planes de actuación que incorporen algunos aspectos susceptibles de mejora, con la finalidad de prestar un mejor servicio a los ciudadanos navarros y conseguir una mayor garantía de la seguridad jurídica.

A tal efecto, y dado que son varios los Departamentos que podrían resultar competentes en su elaboración, procede que el Gobierno de Navarra, en su condición de superior jerárquico, determine el que debe proceder a la redacción del proyecto correspondiente.

Habida cuenta que el propio Decreto Foral 29/2003, en su disposición final primera apodera expresamente al Consejero titular del Departamento de Presidencia, Justicia e Interior para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para la ejecución y desarrollo del citado Decreto Foral, y que se trata de una materia de política general que excede de los meros aspectos sectoriales propios de otros Departamentos, amen de referirse en particular a cuestiones de

Publikoetan arautzen duen otsailaren 10eko 20/2003 Foru Dekretu indardunean azaldu bezala. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparrurako plana onetsi behar du eta, nahi izanez gero, toki entitateek ere zeinek bere jarduketa eremukoa onesten ahal dute.

Nafarroako Parlamentuko kide gehienen nahia eta Foru Komunitateko toki entitate batzuek (gehienak eremu mistokoak) egindako eskaera jaso, Nafarroako Gobernuari egokia iruditu zaio jarduketa plan berri batzuk prestatzea, hobe daitezkeen alderdi batzuk jasotzeko, betiere herritar nafarrei zerbitzu hobea ematea eta segurtasun juridiko handiagoa izatea helburu izanik.

Hori horrela, plan horiek prestatzea departamentu baten baino gehiagoren eskumena izan daitekeenez, bidezkoa da Nafarroako Gobernuak, hierarkian gorena baita, proiektua norik prestatu behar duen erabakitzea.

Kontuan harturik 29/2003 Foru Dekretuan berean, azken xedapenetan lehenean, ahalmena ematen zaiola berariaz Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilari titularrari foru dekretu hori garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak emateko eta, gainera, beste departamentu batzuei dagozkien alderdi sektorialetatik haratago doan politika gai orokor bat dela honakoa eta jorratu beharreko gaiak funtzio publikoaren

Función Pública, es al Departamento de Presidencia, Justicia e Interior al que se encomienda la redacción del proyecto del plan de actuación citado.

Por su parte, la Ley Foral 15/2004, de 3 de diciembre, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra, permite en su artículo 42.1 a los órganos de la misma, dirigir las actividades de los jerárquicamente dependientes mediante instrucciones y órdenes de servicio, por lo que, en uso de tal facultad, el Gobierno de Navarra establece en el presente acuerdo las directrices que deben seguirse en la elaboración de los planes de actuación, y en la medida que sea posible, en las actuaciones llevadas a cabo por los diferentes Departamentos en uso de sus competencias en esta materia.

De igual manera, procede dejar sin efecto el anterior Acuerdo de fecha 5 de febrero de 2001, por el que se regula el tratamiento del conocimiento de idiomas en los baremos de méritos de las convocatorias de ingreso y provisión de puestos de trabajo en la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y sus organismos autónomos, ordenando la elaboración, en ejecución de la disposición adicional segunda del Decreto Foral 29/2003, de 10 de febrero, de uno nuevo que incorpore las directrices que, asimismo, se establecen en el presente acuerdo. Asimismo procede, finalmente, publicar el presente acuerdo habida cuenta que el Acuerdo de 5 de febrero de 2001 que se deja sin efecto fue igualmente objeto de publicación en el BOLETIN OFICIAL de Navarra.

El Gobierno de Navarra, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Foral del Vascuence,

gainekoak direla, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eskatu zaio aipaturako jarduketa plana prestatzeko.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak, 42.1 artikuluan, baimena ematen die administrazioaren organoei beren menpe daudenen jarduerak zuzentzeko, horretarako jarraibide eta aginduak emanaz. Horrenbestez, ahalmen hori erabiliz, Nafarroako Gobernuak erabaki honetan jarraibide batzuk finkatu nahi ditu jarduketa plan horiek prestatzeko orduan eta, ahal den neurrian, departamentuek arlo horretan dituzten eskumenak erabiliz egiten dituzten jarduketetan aintzat hartu beharko direnak.

Era berean, bidezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko deialdietako merezimendu baremoetan hizkuntzak jakiteari eman beharreko tratamendua arautzen duen 2001eko otsailaren 5eko erabakia indarrrik gabe uztea eta beste bat prestatzeko agintzea, otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, erabaki honetan ezartzen diren jarraibideak bildu beharko dituen. Azkenik, bidezkoa da, orobat, erabaki hau argitaratzea, orain indarrrik gabe utziko den 2001eko otsailaren 5eko Erabakia ere Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu baitzen.

Euskarari buruzko Legean xedatutakoa betez eta 29/2003 Foru Dekretan

y de acuerdo con el Decreto Foral 29/2003, a propuesta del Consejero de Presidencia, Justicia e Interior,

ACUERDA:

1.º Iniciar el procedimiento de elaboración de un nuevo Plan de Actuación, conforme establece el artículo 5 del Decreto Foral 29/2003, de 10 de febrero, por el que se regula el uso del vascuence en las Administraciones Públicas de Navarra, para la aplicación de la normativa sobre el uso del vascuence en la zona vascófona y en la zona mixta, encomendando la redacción del correspondiente proyecto al Departamento de Presidencia, Justicia e Interior.

2.º Ordenar asimismo que, en su elaboración, se tengan en cuenta las siguientes instrucciones:

a) Los rótulos indicativos de oficinas, despachos y dependencias de la Administración de la Comunidad Foral y sus organismos públicos, así como de otros entes dependientes de la misma, con sede en la zona mixta, se redactarán en castellano, pudiendo redactarse de forma bilingüe castellano-vascuence, según los casos, en función de las circunstancias concurrentes.

b) La señalización viaria en la zona mixta que sea competencia de la Administración de la Comunidad Foral se llevará a cabo en castellano, pudiendo rotularse de forma bilingüe castellano-vascuence, según los casos, valorando criterios de oportunidad y cualesquiera otras circunstancias concurrentes, específicamente, las derivadas de la garantía de la seguridad vial.

3.º Dejar sin efecto el Acuerdo de 5 de febrero de 2001, del Gobierno de Navarra,

ezarritakoarekin bat, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak proposaturik, Nafarroako Gobernuak

ERABAKI DU:

1. Euskararen erabilera eremu euskaldunetan eta eremu mistoan arautzen duen araudia aplikatzeko jarduketa plan berri bat prestatzeko prozedurari hasiera ematea, hala ezarrita baitago Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautu zuen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuaren 5. artikuluan, eta proiektu hori prestatzeko lana Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren gain uztea.

2. Plana prestatzeko orduan ondoko jarraibide hauek hartu beharko dira kontuan:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren menpe dauden erakunde publiko eta bestelako entitateek eremu mistoan dituzten bulego, langela eta lantokietako errotuluak gaztelaniaz idatziko dira, baina elebitan ere idazten ahalko dira, gaztelaniaz eta euskaraz, inguruabarren arabera.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenekoak diren eremu mistoko bide-seinaleak gaztelaniaz idatziko dira, baina elebitan ere idazten ahalko dira, gaztelaniaz eta euskaraz, kasuan-kasuan, egokitasuna eta bestelako inguruabarrak aintzat hartuz, batez ere bide-segurtasunaren inguruko irizpideak.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan sartu eta bertako lanpostuak

por el que se regula el tratamiento del conocimiento de idiomas en los baremos de méritos de las convocatorias de ingreso y provisión de puestos de trabajo en la Administración de la Comunidad Foral, ordenando al Departamento de Presidencia Justicia e Interior la tramitación de un nuevo Acuerdo en sustitución del mismo, en el que se contemple que en todos los baremos de méritos que se aprueben en la Administración de la Comunidad Foral y sus organismos autónomos para la provisión de puestos de trabajo sitios en la zona mixta se incluirá la valoración del conocimiento del francés, inglés y alemán, como idiomas oficiales de la Unión Europea, modulándose la valoración de cada uno de ellos entre un mínimo del 1 por 100 y un máximo del 5 por 100, en relación con la puntuación total asignada al resto del baremo de méritos, en función del grado de atención o trato con el público requeridos por la plaza en cuestión, según se establezca en la plantilla orgánica. Igualmente, cuando no esté considerado como requisito, se incluirá la valoración del vascuence como mérito con una valoración superior en un 5 por 100 a la puntuación correspondiente a los idiomas antes indicados.

4.º En tanto no se apruebe definitivamente por el Gobierno de Navarra el Plan de Actuación al que se refiere el presente Acuerdo, los distintos Departamentos y organismos públicos y otros entes dependientes de la Administración de la Comunidad Foral ejercerán sus competencias en las actuaciones que guarden relación con el presente Acuerdo ajustándose a los criterios y principios contemplados en el mismo.

betetzeko deialdietako merezimendu baremoetan hizkuntzak jakiteari eman beharreko tratamendua arautzen duen 2001eko otsailaren 5eko Erabakia indarrrik gabe uztea, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari hura ordezteko beste bat tramitzeko agintzea. Erabaki horretan jaso beharko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek eremu mistoan dituzten lanpostuak betetzeko onesten diren merezimendu baremo guztietan frantsesez, ingelesez eta alemanez jakitea baloratu behar dela, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak baitira, eta horietako bakoitzari merezimenduen baremoaren gainerako ataletan guztira lor daitekeen gehieneko puntuazioaren %1 gutxienez eta %5 gehienez egokituko zaiola, lanpostuan aritu behar duenak jendearekin izanen duen tratua arabera, plantilla organikoan ezarriko denari jarraikiz. Era berean, euskaraz jakitea nahitaezkoa ez denean, euskaraz jakitea merezimendu gisa baloratuko da, eta egokituko zaion puntuazioa lehen aipatutako hizkuntzei egokitzen zaiena baino %5 handiagoa izanen da gutxienez.

4. Nafarroako Gobernuak erabaki honetan aipatzen den jarduketa plana behin betikoz onetsi bitartean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek eta haren menpeko gainerako erakunde publiko eta entitateek, erabaki honekin zerikusia duten jarduketetan aritu behar dutenean, bertan ezarritako irizpide eta printzipioei segituz jokatuko dute.

5.º Requerir la colaboración de todos los Departamentos y organismos públicos de la Administración de la Comunidad Foral con el Departamento de Presidencia, Justicia e Interior para el mejor cumplimiento de lo establecido en el presente Acuerdo.

6.º Notificar el presente Acuerdo a todos los Departamentos de la Administración de la Comunidad Foral y sus organismos públicos, así como a los demás entes dependientes de la misma.

7.º Ordenar la publicación del presente acuerdo en el BOLETIN OFICIAL de Navarra a los efectos señalados en la parte expositiva.

Pamplona, 18 de septiembre de 2006
El Consejero de Secretario, del Gobierno de Navarra, Javier Caballero Martínez.

5. Nafarroako Foru Komunitateko departamentu eta erakunde publiko guztiei eskatzea Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari lagun diezaiotela, erabaki honetan ezarritakoa ahalik eta hobekien bete dadin.

6. Erabaki hau Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu guztiei eta haren menpeko erakunde publiko eta entitate guztiei jakinaraztea.

7. Erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea, azalpen zatian adierazitako ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2006ko irailaren 18an._Nafarroako Gobernuako kontseilari eta idazkaria, Javier Caballero Martínez.